



Emakume egileak euskal antzerkian

- *Maria Arizmendi*
- *Janamari Malharin*
- *Miren Arrizabalaga*

EMAKUME EGILEAK
EUSKAL ANTZERKIAN

Maria Arizmendi
Janamari Malharin
Miren Arrizabalaga

Koordinaketa: A. Egaña

Azala: Txakel & Asociados

Maketazioa eta Imprimaketa: Artes Gráficas Lorea, S.L.

Donostia

Lege Gordailua: SS-1205/94

Donostian, 1994.go Abendua

EMAKUME EGILEAK EUSKAL ANTZERKIAN

Liburuxka honekin hiru emakume antzezle omendu nahi ditugu. Hiru emakume hauek antzeko gauza asko dituzte, hizkuntza, antzerkia, musika etab... hitz gutxitan gure kultura eta ohiturak maite dituzte.

Hiruei galdetu nien, zergatik eta nola sartu ziren antzerki munduan, eta erantzuna bera zuten, gure hizkuntza maite zutela eta euskara gutxi egiten zenez, euskararen erabilpena zabaltzeko, antzerkia egitea erabakitu zutela. Gainera, paperak buruz ikasi eta gero ez omen zitzaizkien ahazten.

Antzerki munduan zeharo murgildurik zeuden hiruak. Miren Nekane antzezlaria izan zen gerra aurreko garaian, Janamari Zuzendari gerra aurre eta ostean, eta hirugarrena, Miren Arizmendi antzezlaria eta gero zuzendaria izan zen orain dela urte gutxi arte.

Kontuan izan behar dugu, zailtasun handiak zituztela garai hartako emakumeak antzerkia egiteko, antzerkia egin zezaketen bai bainan gero etxeko lanak egitera joan behar zirela.

Honi buruz ere galdetu nien, nola hartu zuten beren etxean antzerkian hasi zirenean, eta erantzuna berdina izan zen, batere ondo ez, batez ere aitak.

Hiruekin hizketan, omenaldia dela eta, ez zuten nahi ezer egitea,

“ez zutela merezi...”, zioen M. Arizmendik; “zertarako Jaungoinkoa, bainan, nori bururatu zaio horrelako gauza bat”, Miren Nekanek berriz. Orduan konturatu zen Augustinek egindako elkarrizketa hortarako zela. Berekin hizketan, kontu kontari ezer jakin gabe, Janamariri omenaldi bat egin zioten orain dela gutxi itxasun eta harro sentitzen zen, bainan hemengoa diferentea zela zioen, Azpeitian bere kontuekin liburu bat aterako dutela eta horrelako gauzik ez zuela espero.

•



Miren Arizmendi

Urrietan jaio zen 1912.urtean. Sei anai-arreba ziren, bi urte zituelarik aita galdu zuen. Miren, emakume irekia dugu, gustoa ematen du berekin hitzegin zenbait gertakizun ditu gogoan izan ere hainbeste urtetan eta hainbeste jenderekin antzerkia egin eta gero, oroitzapen ugari ditu.

Antzerki lanetan bertako batzokian hasi ziren, egunez josten eta gauez antzerkia prestatzen. Bere etxetik hiru ahizpa joaten ziren eta herriko beste neska eta mutil batzuk elkartuaz taldea osatu zuten.

Guda aurretik hasi zen antzerkia egiten antzezlarik bezela, ez dauka ziurtasun handirik, bainan lau urtez gutxi gora behera ihardun zuten. Gero gerra eta urte batzuetara, berriz hasi ziren bere zuzendaritzapean emakumez osatutako taldeekin.

Urte guzi haietan gora behera handiak izan ditu Urrietako taldeak, bainan naiz eta desagertu berriz biltzen ziren eta taldea osatu: Mariak 1977.urtean bertako Egunkari bati esan zion bezela "Lanketa honen arra sartzen bazaizu barruan izango duzu betirako. Astuna da bai, bai-

nan sortzen dituen pozak ez dira arinak. Eziketa latza eta neketsa du antzezlanak, bainan atsegin zorragarriak ere berekin dakartza eta jakintza alderdian Herriari eskeintzen zaiona ez da txantxetakoa".



Janamari Malharin



Janamari Malharin, Donapaleun jaio zen 1912an otsailak 1an. Hamabi anai-arreba ziren, bederatzi neska eta hiru mutil. Eskola pribatuko irakaslea izan da. Euskalzale suharra da, eta urte askotan antzerki taldeak zuzendu ditu. Gilsonen "kakerre eta Manezazeri", Larzabalen "Sarako Loreak", Monzonen "Gure behia hila da", eta Bidegain, Leon Leon eta beste idazle bikain askoren lan ugari antzokiratu du.

Antzerki bakoitza askotan jarri dute, batez ere Mugerre eta Itsasuko gazteekin.

Janamarirekin hizketan, benetan emakume alai batekin aurkitu ginen; kontu kontari denbora franko joan zitzaigun, baina gustora aritu ginen, hogeitahamairu urtez antzerkia zuzentzen egon zela aditzen.

Bera hogeitabosti urtekin sartu zen mundu hontan, katezismoko haurrekin, urte bukaerako antzerkia prestatzen. Denak pozik, eta gura-soak txoratzen, beren haurrak ikustean. Poliki poliki, urtean bi antzez saiotara pasa zen, gero gazte taldeekin jarraitzeko; zenbat jende pasako ote zen urte guzti hauetan bere esku tartetik...

Lan asko ematen omen zuen antzerki bat aurrera ateratzeak:

Lehenengo antzerkiak irakurri behar ziren, hortarako batzun batzuk aukeratuaz. Ez zeuden gaur hainbat antzezlan, bainan baziren euskal idazleak, eta bestela antzerkiak euskaratu egiten zituzten. Ondoren antzezleriak aukeratu behar ziren, paperak buruz ikasi, dekoratuak prestatu, emanaldiak atondu, etabar. Lana zela bai, bainan ez ziren konturatu ere egiten, gustora egoten bait ziren.

Guzti horretaz gain, Janamari organo jolea dugu Itxasuko elizan, berrogeita hamazazpi urte daramatza eta oraindik egun batzuetan joaten da.

Bainan, antzerkia bere mundua zela edo dela nabaritzen zaio, pozik esaten digu bere iloba txikia, hemeretzi urtekoa antzezleria dela eta arras ongi egiten duela gainera.

•

Miren Nekane Arrizabalaga



1911ko Urriaren 4an jaio zen Ondarroan. Bederatzi anai arreba izan ziren, bizirik bost geratzen direlarik: Hiru neska eta bi mutil. Ama, hogeitahemezortzi urte zituela hil zitzaien. Miren Nekane beste bi emakumeak bezala oso alaia eta atsegina dugu. Bere ahizpa ta koinaturekin bizi da, eta biekin gustora egon nintzen, garai hartako kontuak aditzen. Antzerki munduan gaztetatik sartu ziren biak. Lehenik bere ahizpa eta gero bera. Nahiz eta handik urte batzuetara ahizpak utzi, berak jarraitu egin zuen.

Oraindik gogoan dute txikiak zirelarik gizonak egiten zutela antzerkia, zein antzerki moeta ziren ere, beranduago emakumeak hasi ziren antzerkigintzan eta gizon emakumeak ere hainbat antzerki egin zituz-

ten elkarrekin. Oroitzapen handiak dituzte!

Gero gerra etorri zen, eta han bukatu zitzaizkion bere antzerkiko lanak, gerra ostean ez omen zen talderik osatu eta.

Ondarroan, antzerki talderik ez zen urte askotan sortu, gero Kresala azaldu zen baina hori beste gauza bat zela.

Antzerkiaz aparte beste gauzarik egin izan duen galdetzean baietz erantzun zidan pozik, musika maite zuela eta abeslaria izan dela Ondarroako orfeoian.

AXEN EGAÑA

MARIA ARIZMENDI

Maria Arizmendi, Urnietan jaio zen 1912an. Nahiz eta Idiazabal kalean jaioa izan, baserria ere bazutenez, gogotik egin behar izan zuen lan orain bere etxea eraikita dagoen lurretan. Izan ere, bi urte zituelarik aita galdu zuen, bere ama beraz, sei seme-alaba txikirekin alargun geratu zen. Jostun ofizioa ikasi zuen eta beren etxea zen hartako ateak beti zabalik egoten ziren, herrira jaisten ziren baserritarrek salda bero bat hartu, oinetakoak aldatu eta baita berriketalditxo bat egiteko ere.

Baina guzti honetaz gain, Mariak antzerkia du oso gogoko. Oso gazte zelarik, gerra aurretik, hasi zen herrian antzerkia egiten, hasiera hartan antzezle gisa. Gerra ondorengo urte gogor haietan bere egon ezinak eta batez ere euskal zaletasunak bultzaturik, Urnietan bertan EGI-BILA antzerki taldea sortu zuen herriko gazte batzuekin batera, eta hamasei urtez taldea bizirik mantendu zuen. Bere helburua, besteak beste, euskara arlo guztietan erabiliz hizkuntza bizia izatearena zen. Emakume bizi honi antzerkiaz gain, kantatzea gustatzen zaio eta baita jendearekin txolartean aritzea ere.

Bere euskalzaletasunak bizirik dirau. Eta politika kontuetan gaur egun ere biziki parte hartzearen arrazoiatariko bat huraxe da.

Baina emakume honek bizitakoak bere eskutik ezagutzea litzateke hoberena.

GALDERA.— Maria nolatan hasi zinen antzerkia egiten? Nondik

datorkizu antzerkirako zaletasuna?

Gu gerra aurretik, batzokian ibiltzen ginen, eta hasi ziren antzerkia egin behar genukeela esanez. Izan ere, Hernanin, Andoainen, Donostian eta inguruko herri guztietan hasiak ziren talde batzuk antzerkia egiten eta, beno, ba gu ere bildu ginen.

Gure etxeko hiru ahizpak eta herriko beste neska eta mutil batzuk elkartu, talde bat osatu eta antzerkia egiten hasi ginen. Nik orduan hogeiren bat urte izango nituen. Besterik gabe hasi ginen.

Zuzendari lanetan Roke Lasarte aritzen zen, jakintza haundiko gizona zen, eta gainera antzerki asko ikusitakoa, izan ere, Madrilera eta batera eta bestera ibiltzen zen. Roke izan zen antzerki kontuetan gure lehen maisua, berak erakusten zigun hitzegiterakoan ahoa nola ireki, eszenatokian ze postura hartu eta nola ibili, besoak ez gurutzatzeko esaten zigun eta hobe genuela besoak zintzilik uztea, eta hitzegiterakoan eskuak asko ez mugitzeko eta baita gorputza zuzen edukitzeko eta jende aurrean nola egon, eta beno, horrelakoak izan ziren gure lehenengo ikasketak.

Antzezlanaren egitearenak, bestalde, ez zuen inolako misteriorik, Roke berak egiten zuen pertsonaien banaketa eta gu beti konfome izaten ginen harek esaten zuenarekin. Entsaioetarako astean bitan edo elkartzen ginen. Gauean izaten genituen entsaioak, lana bukatu eta afal ondoren batzokian elkartzen ginen, gutxi gora behera negu bakoitzean antzezlari bat edo bi prestatzen genituen, gero herrian lau-bost aldiz antzezteko. "Iziartxo", "Bihotz berak", "Maiteren neurri", "Txibiribiri"... horiek dira gogoan ditudanak, gehiago ere izango ziren.

GALDERA.— Antzezten zenituzten lanetan zein pertsonai egiten zenituen?

Ez da erreza orduko kontuak gogoratzea baina, esate baterako, "Negarrez igaro zen atsoa" izeneko antzerkia, ezkontza bati buruz zen,

bertan guk hauzoko emakume batzuren papera egiten genuen eta gure oparitxoak eramanez andregaiaren etxera joan eta bertan neskaren amak eskainitako txokolatea hartuz, herriko gorabeheretako buruz, eta horrelakoak, mutilaren aldeko famelikoei buruz, ezagutzen genituela eta ez genituela eta horrelakoak, kontu kontari aritzen ginen. "Iziartxo" antzezlanean berriz nik Iziartxoren papera egiten nuen. "Damuba garaiz"en, mutil batek ezkontzeko andregaia aukeratu zuen, eta mutil horren gurasoek ez zioten neska harekin ezkontzen uzten txurritu egiten zuenaren fama zeukalako inguruan, eta neska moxkor haren papera ere nik egiten nuen. Eszena batean senargaiaren etxera txipili-txapala azaltzen nintzen eta nabarmen geratzen zen familiaren aurrean ez nintzela etxe hartarako moduko emakumea. Ez zen errezu mozkorraren papera egitea, baina polita zen, eta gainera kanturen bat ere bazegoen tartean.

GALDERA.— Zenbat lagunek osatzen zenuten garai hartako taldea?

Gure etxeko hiru ahizpok eta beste etxe bateko beste lau ahizpa ziren eta gero mutilak. Neska mutilak ibiltzen ginen, akaso mutil gutxixeago izaten ziren, baina hor nonbait.

Mariak oroimen guzti hauekin batera bere jostun lanari buruz ere hitzegiten du, 17ren bat urterekin jostundegi batean hasi zen josten ikasten; urte batzuren buruan Maria eta bere ahizpek tailer hura hartu zuten, gerra garaia iritsi zen arte behintzat. Gerrarekin batera, beste arazo batzuen artean telak lortzea oso zaila zenez, tailerra itxi eta etxean hasi ziren josten. Mariaren etxean herriko kontu guztiak jakiten ziren, edozein egunkarik baino informazio gehiago izaten zuten, izan ere, baserrietatik herrira jaisten zirenak bere etxean geratzen ziren salda bat hartu eta zapatak aldatzera, beren etxeko ateak beti zabalik egoten baitziren. Eta urte haietan, afal ondoren, gaueko hamarretan, Batzokira entsaiatzera nola joaten ziren datorkio gogora. Eta cuskara irakurtzen nola ikasi zuen galdetzerakoan, berak betidanik irakurtzen zuela aitortzen digu, izan ere, beti izaten omen zen Arantzazuko egu-

tegiko orriren bat, edo Arantzazuko aldizkarià edo meza liburua, beti izaten zen Mariaren etxean euskaraz zer irakurri.

GALDERA.– Gerra aurrean antzerkia egiten zenueneko garaitik zein da zure oroimenik gogokoenà?

Batzokian nola biltzen ginen eta ze txolarte ederrak pasatzen genituen. Gainera politikari buruz eta moda kontuetaz ere hitzegiten genuen, eta neri beti gustatu izan zait inguruko jendearekin jardutea. Orain ere beti izaten ditugu honegatik edo hargatik bilerak. Bai jostundegia dela edo kantatzeko kontuak direla, neri beti, jende artean eta gazte jende artean ibiltzea tokatu zait. Eta gerra aurretik egindako antzerkiari buruz, oroimenik politena Donostiako Kursaalera "Saski–Naski" izeneko lokal hartan egin genuen emanaldiena izango dela uste dut. Lokal hartan denetarik egiten zen, antzerkia edo kantaldia antolatzen zen eta gero dantza izaten zen, oso ondo eratua egoten zen hura, gazte jende asko biltzen bait zen han. Eta bertara bi aldiz joan ginen, lehenengo aldian "Negarrez igaro zen atsoa" antzeztu genuen, eta hurrengo joan ginenean "Uste diñat–Ya lo creo" egin genuen, neska hutsena zen antzezlan hau. Bertan beste neska batek eta biok neskame papera egiten genuen: "eta zer uste din horrek, gu Aizgorritik etorri eta hor mendian egongo geala, uste diñat–ya lo creo. Gure amaren grazia hartuko liken horrek, ez din jakingo erderaz baina gure amaren atera hartuko liken señora markesak".

–Hauek, "Uste diñat–Ya lo creo" antzezlanari buruz hitzegiterakoan Mariari burura datozkion hitzak dira– Lan honekin sekulako txaloak jaso genituen, asko gustatu zitzaion jendeari. Andoaainera ere joan ginen antzeztera, oso ondo ateratzen zitzaigun; antzezlan harek, guretzat idatzita zegoela zirudien. Orain dela seiren bat urte, inguruko batzuk hasi zitzaizkigun esaten ea zergatik ez ote ginen orduan ibilitakoak bildu eta antzezlan hura berriz egiten, tentatuta ibili ginen baina ez genuen aurrera egin eta orain beranduegi da.

GALDERA.– Aktore lanetan ibili zintzean, seguru makina bat ger-

takizun xelebren gertatuko zitzaizkizula eszenario gainean, gogoan al duzu antzeztan ari zineneko pasadizurik?

Bai, taldeko bati gertatutakoa oso gogoan dut. Bera oraindik bizi da eta elkar ikusten dugunean oraindik parre egiten dugu. Ba, kontua da, "TXIBIRIBIRI" izeneko antzeztan bat egiten ari ginen eta mutil honek beno orduan mutila zen, lanaren hasieran eszenatokira sartu eta bakar hizketa bat egin behar zuen: "Txibiribiri, ze politak zaudeten, ta txibiribiri ze areto ederra jarri duzuen, loreak daude hor...". Sartu zen baina... hasi zen "Txibiribiribiribi, eta txibiribiri" eta segi txiribiribiri gora eta txibiribiri behera, eta ez zuela besterik esango; izan ere, lekuzioa ahaztu egin zitzaion nonbait eta antzeztanak "Txibiribiri" izena zuenez, hari bururatzen zitzaion gauza bakarra horixe zen, eta hamai-ka modu desberdinetara esan zuen gainera, "txibiribiri, eta txibiribiri ta txibiri, txibiribiri" serio serio; hain ederki esaten zuen eta gainera antzerkiak hala izena zuenez inori ez zitzaion arraroa egin. Gu bitartean han geunden kortina atzean parrari ezin eutsi. Nere ahizpak atera behar zuen gero, eta mutilari tokatzen zitzaiona berak esan zuen eta honela jarraitu ahal izan genuen aurrera. Saioa bukatu ondoren makina bat parre egin genuen bere kontura, "baina hik zer egin dek, ba al dakik zer egin duan" esan genion, eta berak ahaztu egin zitzaiola eta segi txiribiribi horrekin! A ze urteak!

GALDERA.— Zenbat urtetan ibili zineten batzokiko talde harekin antzerkia egiten?

Egia esan, oso ondo ez dakit, baina lauren bat urte izango ziren. Gero, 36ko gerra etorri zen eta horixe bukatu ziren aktore bezala nik egindako lanak.

Garai hartatik daukadan penarik haundiena zera da, urte gutxi batzuk besterik ez zirela izan, eta pixka bat ikasten hasi ginenean gerra harek pikutara bidali zituen gure ahalegin guztiak. Gainera euskaraz ezin genuen hitzegin, izkutuan ibili behar genuen,... bizi izan ez denari ezin zaio adierazi zer nolako zapalkuntza izan zen hura. Batzokia

beraientzako hartu zuten eta akabo gure saio eta lan guztiak. Alde egitekotan ere ibili ginen, baina gure amona oso gaisorik zegoen eta hiru ahizpok gure ama amonarekin bakarrik ez, uzteagatik geratu egin ginen etxean. Egun batean, asaltuko goardiak gure etxera etorri eta antzerki taldean ibiltzen ginen hiru ahizpak "rojo separatista" batzuk ginela eta ilea zeharo moztu ziguten; bai guri eta baita taldeko beste lau neskei. Eta hor bukatu ziren gure hasierako antzerki kontu haiek. Gogorra izan zen herrian geratzea, baina auskalo zer gertatuko litzai-gukeen alde egin izan bagenu.

Mariak gerra garaiko eta gerra ondorengo urte gogor haiek ezin ditu ahaztu, orduko estuasun eta beldurrak, eta berak hain gogoko duen antzekia ezin egina.

GALDERA.— Eta gerra bukatu ondoren nola itzuli zinen berriz ere antzerki mundura?

Urte batzuk pasa eta hasi ziren berriz ere herrian antzerkia egin behar genukeela, eta horrelako kontuekin, beraz Maria Siervaren alabak eta Acciòn Catolica—ren babespean talde bat osatu genuen.

Nere bi biloba eta haien lagun batzuk elkartu, eta berriz ere antzerkia egiten hasi ginen. Orduan ordea, Acciòn Catolica eta Mariaren alabak galerazita zeukaten neska eta mutilak biltzea, horregatik parroki inguruan ibiltzen ziren neskez osatutako talde bat egin behar izan genuen. Eta hasi zitzaizkidan "zu lehenago ere antzerkian ibilia zara, esperientzia daukazu, eta zergatik ez duzu zuzendari lana egiten?", eta nik ezetz eta beraiek baietz "egingo ez duzu ba!" eta horrelaxe hasi nintzen zuzendari bezela.

GALDERA.— Nolakoa izan zen zuzendari bezala eduki zenuen lehen esperientzia hau?

Beno, nik ahal nuena egiten nuen. Sakristian biltzen ginen, eta erre-tore etxeko azpian beste gela eder bat ere bazen, gainera apaizak ere

laguntzen zigun. Astean bitan edo sei—zortzi neska elkartu eta lehen-dabizi kopiaketa lanak egiten genituen, denek liburua edo antzezlanak eduki arte, eta gero irakurri egiten genuen behin eta berriz, buruz esateko moduan ikasi arte. Eta azkenean paperik gabe entsaiatzen hasten ginen.

GALDERA.— Eta nondik edo nola moldatzen zineten dekoratua egin eta jantziatarako?

Dekoratua ezer gutxiarekin egiten genuen, aulki bat eta mahai bat eta... zegoenarekin moldatu behar!

Jantziak berriz, baul zaharretatik ateratzen genituen, etxe guztietan beti izaten zen zeredozer; eta batez ere, bazen lehen hemen alkate izandako baten arreba eta jantzi apainak, sonbreruak, poltsak, eta horrelakoak behar genituenean beti uzten zizkigun, eta gainera neskak bat ere bazuen ez uniformeak behar izaten genuenean inolako arazorik gabe ematen zigun bere kofia eta guzti. Oso lehiala zen emakume hura.

GALDERA.— Zer nolako antzezlanak aukeratzen zenituzten eta zer dela eta egiten zenuten aukeraketa?

Egia esan, ez genuen aukera haundirik izaten, neska hutsentzako antzezlan gutxi izaten baitziren. "Lore bat loitan" izenekoak egin izan genuen, hau Amundarain apaizarena zela uste dut, eta beste batzuk ere egin izan genituen. Eta inoiz edo behin antzezlanean mutil paperen bat baldin bazen, gutakoren bat mutilez jantzi, bigote ta guzti, eta horrelaxe ibili behar izaten genuen. Batzutan farre eginarazteko lan xele-break egiten edo bestetan berriz negar eginaraztekoak, denetarik egiten genuen guk.

GALDERA.— Noiz eta non erakusten zenituzten zuen antzezlanak?

Urtean behin obra bat egiten genuen, hura ia beti, Maiatzeko azkeneko igandean, hemen herrian erakusten genuen, eta gero berriz ere,

eguberri aldean, lan berdina jartzen genuen. Garai haietan sakristian antzezten genuen monjen babesean, gainera ez genuen kartelik jartzen, jendeari ahoz-aho esan eta horrela zabaltzen genuen noiz eta non izango zen gure saioa, eta hala ere sakristia bete egiten genuen, jendea biltzen zen bai, nerbioak edukiarazteko adina. Eta nerbioak ez dira gauza ona, alfer-alferrik izaten dira, ez zara behar bezala egoten eta gainera lana gaizki eginarazten dizute. Ni hor ibiltzen nintzen kortina atzean ezkutaturik: "Etorri honuntz", "Eseri", eta horrelakoak esaten.

GALDERA.— Zer gertatu zen talde harekin? Nolatan desagertu zen?

Urte batzutan ibili ginen, lau zpabost urte egin genituen eta gero, gauzak lasaitu egin ziren, Mariaren alabak ere desagertu egin ziren eta jendea batera eta bestera sakabanatu zen. Guk ahal zen bitartean egin genuen eta...

Mariak orduko kontuak gogora ekarriz algara egiten du, baina emakumez osatutako talde hartan aspaldi ibili zen eta garai haiei buruz gauza asko ahaztuta ditu. Dena den, nahiz eta taldea desagertu, ez zen ordea Mariaren antzerki zaletasuna hortxe zapuztu, izan ere, 1965. urtean neska-mutilez osatutako antzerki talde haundi bat sortu zen Urnietan, urteetan eta urteetan Euskal-Herriko antzerki talde amateurrik bizienetariko bat. Makina bat lekutan etenik gabe antzeztu duen taldea, euskal kultur arloan eragin haundikoa eta beste talde askorentzat adibide.

GALDERA.— Maria, konta iezaiguzu nondik nora sortu zenuten EGI-BILA taldea, eta egin iezaiguzu bere historia laburra.

Elizondo aretoan gela haundi bat zegoen, eta baita taberna ere; bertan herriko jendea elkartzen ginen herriko kezkaz edo arazoez hitzegiteko. Gure herriaren epeltasuna, kezkarik eta girorik eza nabariturik, zerbait egin beharraren ziria sartzan hasi zitzairen herriko gazte jator batzuei, eta han tartean nenbilen ni ere. Euskara eta euskal kulturaren

alde zerbait egin nahi genuen. Inguruko herrietan hasi ziren neska eta mutilez osatutako taldeak antzerkia egiten "guk ere zer edo zer egin behar genuke", "zergatik ez dugu guk ere antzerkia egiten?" eta horrelaxe 1965–66. urtean gutxi gora behera, hasi ginen bazterrak nahasteten.

Taldearen izena denen artean aukeratu genuen, antzerkia egin eta egiten ez zutenen artean, hor ari ginen zein izen aukeratu eta batek bota zuen "gezurra nagusi den garai honetan, EGI–BILA litzateke izen aproposa". Denoi gustatu zitzaigun izena eta horrelaxe bataiatu genuen taldea. Don Jose Goya erretoreak ere asko lagundu zigun, berak Elizondo aretoa utzi eta bertan zegoen antzoki txiki batean biltzen ginen. Nik antzerki liburu asko neuzkan eta lehendik antzerkia egiten ibilia nintzenez, berehala jarri zidaten zeregina "zuk zuzendaritza egingo duzu, zu hortan ibilia zara eta badakizu", eta horrelaxe izan zen. Hortik aurrerako kontuak asko dira, pentsa, hamasei–hamazazpi urtetan zenbat antzezlan prestatu ditugun, zenbat aktorek parte hartu duten taldean, zenbat herritan atera garen jende aurrera!

Mikel Etxeberria EGI–BILAKO partaide izandako Mariaren laguntzaile zuzenak esan digunez, hasiera batean taldea 15–16 lagunek osatu zuten, baina ez ziren hasierako lagun haiek taldeak iraun zuen urte guzti haietan berdinak izan, ez eta gutxiagorik ere, EGI–BILA taldekoak 100dik gora lagun pasa omen ziren. Izan ere, urtero hauetako aktore batzuk taldea utzi egiten zuten, batzuk lanarengatik, beste batzuk berriz, ezkondu eta herritik alde egiten zutelako edota lanetik atera ondoren antzerkia egitea oso neketsua gertatzen zelako. Dena den, taldetik alde egiten zutenek utzitako hutsunea berehala betetzen zen, haiek alde egin bezain laster jende berria hurbiltzen baitzen taldera; batzuk besteak baino zaletasun haundiagoarekin, eta baita doai gehiagorekin ere. Den–denei, ordea, erakutsi behar izaten zien Mariak jende aurrean nola antzeztu, nola hitzegin eta nola azaldu. Mikel Etxeberriak dioenez, Mariak ez omen zuen inoiz etsitzen, eta hain zuzen ere, emakume sasotsu honen meriturik haundienetariko bat horixe omen da.

1977ko Apirilak 17an, El Diario Vasco–n Mariari egindako elka-

rrizketa batean, antzerkian lanean aritzeak, eta zuzendari bezala gainera, ez ote zuen aspertzten galdetutakoan hauxe erantzun zuen:

"Lanketa honen arra sartzen bazaizu barruan izango duzu betirako. Astuna da bai, bañan sortzen dituen pozak ez dira ariñak. Eziketa latza eta neketsua du antzezlanak; baiñan atsegin zoragarriak ere berekin dakartz eta jakintza-alderdian erriari eskeintzen zaiona ez da txantxetakoa."

Eta orain urte batzuk esandako hitz hauek gaur egun bizirik diraute emakume honengan. Orduan egia bazen, orain ere egia da, halaxe pentsatzen jarraitzen baitu.

GALDERA.— Zuzendari bezala zorrotza al zinen?

Zorrotza? Nola izango nintzen zorrotza! Ez zegoen zorrotza izaterik, gogor jarritz gero denek alde egingo luteke nire ondotik; gainera, jendeak borondatez lan egiten zuen eta oso gogorra zen lan egin eta gero entsaioetara etortzea, hori ere kontutan hartu behar da. Astean bitan edo hirutan biltzen ginen, batzutan entsaiora sei azaltzen ziren, hurrengoan berriz hamar, ez zegoen inoiz jakiterik, baina beti aurrera egin behar zen. Gainera, Mikel Etxeberriak, taldeko batek asko laguntzen zidan. Berak errespetu haundia jartzen zuen gauza lasaitzen hasten zenean. Eta oso artista haundia zen hura, bere burua jartzen zuen erabat paper hartara entregatuta; barruan zuen guztia ematen zuen. Beste batzuk alperragoak ziren. Dena den, makal aldiak pasa genituen, baina gainditu egiten genituen artean, aurrera egin behar.

Urte haietan Euskal-Herriko herrietan talde dexente osatzen joan ziren, gehienetan ordea, talde haien iraupena oso laburra izaten zen. Urte pare bat, akaso hiru, emanaldi batzuk han eta hemen, eta kitto. EGI-BILA taldearekin ez zen ordea hori gertatu, eta Mikel Etxeberriaren esanetan, Urnietako antzerki talde hau bizirik irautearen arrazoirik funtsezkoenetariko bat Maria bera zen. Mikel Etxeberriak,

aitortu zuenez: "Mariagatik izan ez balitz, talde hura ez zen bizi izango. Emakume honek meritu haundia du. Azpimarratzekoa da jendea nola bereganatzen zuen, eta ez zen nola antzeztu iraskasteaz behin ere aspertzen. Sekulako pazientzia zeukan, hainbeste jende pasa zen EGI-BILA taldetik eta den-denoi berak erakutsi zigun, genekien guztia; zeren, hara hurbiltzen ziren guztiak berriak izaten ziren antzerki lanetan".

Jokin Izagirre taldeko beste partaide baten esanetan, Mariak zuzendari bezala zuen meriturik aipagarrietariko bat bere baikortasuna zen, denei animoa emanaz, taldea aurrera bultzatzeko zuen gaitasuna, ikaragarria omen zen: "Gu talde amateur-amateurra ginen, eta gure maila ez zegoen profesionalekin konparatzerik. Baina Mariak imajinario haundia zuen eta baita espontaneitatea ere, eta hori erabiltzen zuen batipat antzezlan bat muntatzerakoan. Obraren munduan erabat sartzen zen, benetan bizi egiten zuen, eta hori denoi zabaltzen zigun".

GALDERA.— Nola moldatzen zineten talde amateur bat izanik, taldekideen beste zereginak koordinatu eta entsaioak egin, muntaia pres-tatu eta emanaldiak egiteko?

Beno, ez zen lan erreza izaten, batzutan jendea oso nekatuta ibiltzen zelako, baina gogoz ari ginenez aurrera egiten genuen. Hala ere, batzutan makina bat sufritu izan dut. Orain gogora datozkit taldeko bi mutil oso errebeldeak zirenak, haiek hasieran irakurketara azaldu eta gero ez zirenak gehiago entsaioetara etortzen. Joan eta erregutu, eta beraiek ezezkoa esan, ta bidali berriz ere jendea eta ostera erregutu eta alferrik, puf!. Entsaio batera etorri eta gero ez ziren gehiago azaltzen, beraiek beren papera ikasi zutela esaten zuten, eta besteek beren esan beharrekoa ondo ikasi arte ez zirela etorriko. Eta berriz joan eta esan beraiek gabe ez zegoela entsaiorik egiterik, baina ez zuten batera kasurik egiten. Horrelakoak pasa izan zitzaizkigun baina ulertzekoa ere bazen, izan ere, eta lehen esan bezala, jendea gauetan eskolatik edo lana bukatu ondoren etortzen zen entsaioetara, eta ahalegin haundi bat egiten zuen. Nahiz eta batzutan jendeari antzerkiari buruzko

zenbait gauza ulertaraztea zaila izan, jende oso apala zen eta entsaio-
etan ondo pasatzen genuen oso talde jatorra osatzen baikenuen.

Eta muntaketa lana, ba talde guztiek egiten duten bezala egiten
genuen, astean hirutan edo elkartu, 8ak aldera hasten genuen entsaioa
eta han aritzen ginen 10 edo 11ak arte, segun zer nolako sasoia zego-
en. Lehendabizi antzezlanak eskuratu eta pertsonaien banaketa egiten
genuen: "Zuk halako egingo duzu, eta zuk berriz, beste honako hau",
horrelaxe hasten ginen. Lehenengo asteetan irakurtzen aritzen ginen;
behin eta berriz antzezlanak poliki-poliki irakurri, norberak bere pape-
ra nola edo hala ikasi arte behintzat. Gero, mugimenduak antolatzen
genituen, nondik sartu, nora joan, non eseri, eta horrelakoak; hasie-
ran batzuk oraindik paperak esku artean zeuzkatela, baina azkenera-
ko denek ikasten zuten zer esan eta baita nola esan ere.

Ondoren antzezteko garaia iristen zen, lan bakoitza hogeitamarren
bat aldiz erakusten genuen han eta hemen. Hala ere, emanaldi asko
eta asko ezin izaten genituen egin, zuk esan bezala talde amateur bat
ginelako. Esate baterako halako herritik antzeztera joateko deitzen
ziguten, eta juxtu egun hartan batek ezin zuela, edo beste batean beste
batek halako konpromisu bat zeukala, edo lana, edo... dena dela; nahi-
koa zen batek huts egitea emanaldia bertan behera utzi behar izateko.
Ez zen askotan lan erreza izaten denak ados jartzea. Hara, honi buruz
ari garela gogoratzen dut urtero Ordizitik deitzen zigutela udaran ber-
tara antzeztera joateko, makina bat urtetan ahalegindu ziren gainera,
baina beti bagenuen zerbait batek oporrak zeuzkala edo bestea kan-
poan zela, edo... eta ezin izan genuen inoiz joan.

GALDERA.— Eta entsaio eta lan guzti haien fruitua non erakusten
zenuten?

Ba lehendabizi, ia beti Udaberri aldera, Aste Santu inguruan
herrian estrenatzen genuen. Eta gero batera eta bestera ibiltzen ginen,
Hernanin, Andoainen, etabarretan. Behin hemengo festak zirela eta
hurrengoan hango kultur astea zela, saio dextente egiten genituen,
lehen esan bezala 25-35 aldiz erakusten genuen antzezlan bakoitza.

Gipuzkoan antzezten genuen batez ere, inguruko herritatik deitzen zigutelako, baina Bizkaian ere emanaldi dexente egin izan ditugu eta Nafarroan eta Iparraldean, gutxitan, baina han ere arituak gara. Makina bat tokitan ibiliak gara, batzutan herrietako plazetan antzeztu genuen beste batzutan frontoietan, eta baita Eleizetako aldaretan ere, bai Gernikan, bai Lezon eta gogora ez datorkidan beste herri batean ere aldarean antzeztu behar izan genuen. Herri batzutan, Hernanin esate baterako, goizeko 11'30ak aldera antzezten genuen, arratsaldean areto berean zinea izaten zutelako. Denetara moldatu behar izaten genuen. Donostiko Santo Tomasetan, Antzoki Zaharrean antzeztu genuen, bitan oso oker ez banago. Eta haietako batean oso suerte txarra izan genuen, izan ere, manifestazio ikaragarri haietako bat izan baitzen guk antzeztu behar genuen momentu berean.

EGI-BILA taldeak gainera, Tolosako Iparragirre antzokian hamar urtez jarraian, batere hutsik egin gabe, Pazku 2.ean, astelehenez antzeztu ohi zuen.

Aipatzekoa da Gipuzkoako Banketxeak antolatutako ANTZERKI TOPAKETETAN bi urtean parte hartu zutela. Topaketa hauek Trueba antzokian izaten ziren. Lehenengo aldiz 1976. urtean antolatu ziren eta bertan euskaraz antzeztu zuen talde bakarra EGI-BILA izan zen, Iñaki Begiristainen "Igartutako landarea" eskeiniz. Orduko esku programan taldearen helburuak agertzen dira: "Euskal kultura, esaera eta ohiturak landu eta ezagutarazi". Taldearen ezaugarriarik nabarmenena antzerkia euskaraz egitea dela ere azpimarratzen da bertan.

1970. urtean "Pastorales y Cormenzana" saria eskuratu zuten, Euskal-Herrian egindako beren lana eta ekitaldiak goratzeko.

1971. urtean Tolosan lehen aldiz antolatu zen LEHENENGO ANTZERKI SAIL EMANALDIA-n parte hartu zuten, Antonio M. Labayen-en "Agar-en seme Ismael" antzezlanarekin, 72an ere topaketa hauetan parte hartu zutelarik.

GALDERA.- Garai hartako beste taldeekin harremanik ba al zenuten?

Donostiako Maria Dolores Agirreren antzerki taldekoak ezagutzen nituen, beno Maria Dolores ez hainbeste; talde hartatik batez ere Etxebeste ezagutzen nuen; Etxebestek gerra aurretik Egileor eta beste antzezle batzurekin lan egiten, baitzuen. Oso ederki egiten zuten gainera, baina Jose Mari Etxebestek antzezle bezala ez zuen parekorik. Hala ere, ez genuen harreman berezirik beraiekin, ezagutu eta, bai, baina besterik gabe. Guk batez ere, hemen inguruko taldeekin izaten genuen harremana, gure antzera ibiltzen zirenekin, Andoaingo taldekoekin, Tolosakoekin, eta batez ere, Oiartzungo Intxixu taldekoekin, eta bere zuzendari zen Eugenio Arozenarekin Goaz taldekoekin erebai.

Dena den, antzerki topaketak ospatzeari ekin genionean hasi ginen Euskal-Herrian aritzen ziren gainerantzeko taldeekin harremana izaten. Topaketa haietan egiten genuena zera zen: euskal antzerkiaren egoera aztertuz, zer irtenbide eman, zer aurrerabide hartu genezakeen eta beste tokietan gauzak nola egiten dituzten ikusi, gerora begiratu eta guzak hobeto egiteko asmo batzuk burutu, asmoak batipat. Zer edo zer egiten genuen elkartzen ginen aste bukaera haietan. Leku ezberdinetan egin genituen, urte batean Tolosan, beste batean Iparraldean ere bildu ginen Daniel Landartekin eta bere taldeko kideekin, Urnietan ere antolatu ziren topaketa haiek.

GALDERA.— Eta Urnietako Lurdes Iriondok zuzentzen zuen beste antzerki taldearekin ba al zenuten harremanik?

Bai, jakina, haiek beranduago hasi ziren. Lurdesek lan haundia egiten zuen. Harek ordea, gaztetxoekin egiten. Herrian aritzen ziren eta bai horixe, harremana bagenuen baina haiek beste bide bat zeramaten, ikastolako neska mutilekin, gazteekin egiten zuen lan harek.

EGI-BILA taldearen historia luzean, antzezitutako lanen zerrenda luzea daukagu, besteak beste honako-hauek:

T. Alzagaren "Gai dagoenaren indarra"

T. Alzagaren "Bernaiñoren larriak"

"Maite ere neurriz"

Pedro Sarriegiren "Joshe Mariren urte puxkak"
Pedro Sarriegiren "Jokaldi txar bat" (1966.eko Agora saria)
Antonio Maria Labayenen "Kalifornia Ku-Ku"
(1967.eko Agora saria)
Pedro Sarriegiren "Zauritutako lorea"
Antonio Maria Labayenen "Agarren seme Ismael"
(1970.eko Agora saria)
Iñaki Begiristainen "Kiretsa dario"
Patrick Hamiltonen "Lurrun argia" (itzulita)
Iñaki Begiristainen "Muga ausleak"
Iñaki Begiristainen "Igartutako landarea"
(Agora saria), eta beste batzuk.

Taularatu zituzten antzezlan guztietatik gehien antzeztu zutena, Iñaki Begiristainen "Muga Ausleak", honekin 38 emanaldi egin baitzituzten.

"Lurrun Argia" itzulitako lan bat zen, ez zuten baina gehiegitan plazaratu, aldaketa asko eta zailak zeuzkan nonbait eta ezsenario alde-tik arazo asko sortzen zituen.

Beste itzulitako antzezlan batzuk eskuartean ibili zituzten haien artean "La muerte de un viajante" eta beste batzuk.

GALDERA.— EGI-BILA taldean zenbiltzan garaiko zein antzezlan duzu gogokoen?

Asko egin genituen eta batzuk oso politak, bai, batzuk zoragarri ateratzen zitzaizkigun. Orain, aukeratzekotan, nik oso gogoko dut Antonio M^a Labayenen "KALIFORNIA KU-KU", hori oso ederki atera zitzaizkigun. Oso txalotuak izan ginen, gure taldearentzat propio egina zegoela zirudien. Dena den, guk batez ere, Pedro Sarriegi, Antonio Maria Labayenen eta Iñaki Begiristainen antzezlanak egiten genituen, eta azken honekin harreman haundia genuen.

GALDERA.— Nolatan jo zenuten idazle hauengana, nola ezagutu zenituzten eta zer nolako harremana zenuten beraiekin?

Pedro Sarriegi, Hernanikoa zen bera, eta Urnietako erretorea zen Don Josek eta biok, antzezlan baten eske jo genuen beregana, eta bere lan batzuk taularatu ditugu. Gero, hura hil zenean Hernanin omenaldia egin zitzaion eta bertan, guk antzeztu genuen, eta bere iloba igo zen eszenariora omendutakoaren oroigarria jasotzera.

Eta Labayen ere, antzezlanen eske joan eta horrelaxe ezagutu genuen. Gero, entsaioetara ere etortzen zen gure lanari buruz iritzi batzuk eman eta laguntzera, oso gizon jantzia zen. Bere omenez Tolosan, Iparragirre antzokian estrenatu izan ditugu bere antzezlanak. Dena den, harremanik haundiena Iñaki Begiristainekin izan genuen. Alegrikoa zen bera, han antzerki talde bat zegoen eta haiekin lan egiten zuen. Behin hara joan ginen antzeztera, eta harrez gero harremanetan hasi ginen. Azken boladan egin genituen antzerki gehienak bereak izan ziren, gainera asko laguntzen zigun Iñakik guri. Testua ikasi ondoren zuzenketak egitera etortzen zen eta estrenatu aurretik lau edo bost entsaioetara azaldu, eta bere iritzia ematen zigun: "Hau ez dago ondo horrela", edo "Honako hau, horrela esan behar zenuteke", laguntzeko beti prest zegoen hura.

Idazle hauengana jotzen genuen antzerki eske eta beti izaten zuten gure gogoko antzezlanen bat, eta gainera lagun kopuruaren arabera ere, bat edo beste erakusten ziguten. Beste batzutan berriz, Iñaki Begiristain, batez ere, lan berriren bat zuenean guregana etortzen zen erakutsi eta eskeintzera. Askotan gure taldera moldaturiko lanak idazten zituen. Behin, esate baterako, mutil gehiago zeuden taldean eta hortara egokitzen zen lanen bat eskatu genion eta "Muga ausleak" erakutsi zigun, eta huraxe egin genuen. Zapatari bati buruzko antzerki bat ere idatzi zuen, zapatariaren papera bereziki Mikel Etxeberriarentzat idatzita zegoen. Baina taldean gora behera batzuk izan ziren eta Mikelek alde egin zuen antzezlan hartan parte hartu gabe.

GALDERA.— Orain dela urte batzuk Iñaki Begiristaini omenaldia egin zitzaion, EGI-BILA taldeak nola hartu zuen parte omenaldi hartan?

Bai, Iñaki hil eta gero "Don Mejon de Andia" bere saioa antzeztu zen Tolosan. Talde ezberdinetako jendea zegoen muntai hartan. Gure taldetik antzezle gisa Mikel Etxeberriak parte hartu zuen, eta nik apuntadora lanak egiten nituen zuloan sartuta.

Mariak antzerkia egiterakoan zuen gogo eta asmoa euskal kultura eta ohitura onak bultzatzearena zen. Eta EGI-BILA taldearen lanak zuzentzeaz gain, Jokin Izagirrek kontatu zigunez, antzokietako eszenatokietan egoten ziren kontxetan testua xurxulatzeke prest egoten omen zen. Eta kontxarik ez zuen antzokian berriz, kortina tartean edo bionbo atzean ezkutaturik aritzen omen zen. Ez zuen bere taldea behintzat inoiz bakarrik uzten.

GALDERA.— Maria, kontu iezaizkiguzu EGI-BILA taldearekin egin dituzun urte guzti hauetan pilatutako anekdota eta gertatutako kontu xebreren batzuk.

Behin batean taldeko mutil batek bigotea eraman behar zuen eta postizu horietako bat jarri zuen, atera zen antzeztera, jarri zen eta "Hau da nire herria eta hemen nago nire herrian", halako intentzioarekin esan eta ondoren hasperen zaratatsu bat egin zuen "fu" eta guzti, baina hainbestekoa izan zenez bere haize kanporaketa, han joan zitzaion aidean bigotea. Eta jakina ezin zuen makurtu eta bigotea hartu. A ze farrak egin genituen bigote zahar harekin.

Beste behin gogoan dut Iparraldera joatekoak ginela antzeztera, eta beti bezala kotxeetan gindoazen, mugara iritsi ginen eta taldeko neska bati pasaportea ahaztu egin zitzaion, eta jakina, garai haietan pasaportetik gabe ez zegoen aurrera egiterik, eta han geratu behar izan zuen gajoak. Baina kontu guztiak ez ziren hor bukatzen, izan ere, iritsi ginen antzeztu behar genuen lekura eta emandako hitza bete egin behar genuen, orduan jende aurrera atera, gertatutakoa adierazi, eta testua esku artean nuela, irakurritz, neronek egin behar izan nuen neska haren papera. Eta ez naiz kontu askotaz gogoratzen baina, makina bat histori pasatakoak gara, bai.

Mikel Etxeberriak berriz, Añorgan gertatu zitzaien pasadizu bat kontatu zigun. Emanaldia zuten han eta sekulako ekaitza omen zegoen, trumoiak eta tximistak; eta halako batean, non argia joan egin zitzaizen. EGI-BILA taldekoak eszenatokian gelditu ziren, argia noiz etorriko zai. Hiru ordu laurdenez luzatu zen egoera hura, eta taldeko guztiek jendeak alde egin zuela pentsatu zuten, baina argiak piztu zirenean hara non ikusten duten jende guztia beren lekuetan eserita, ez baitzen inor bere lekutik mugitu ere egin. Gertakari honek jendearen zaletasun eta fideltasuna adierazten du nolabait.

Jendeari zor zaion errespetoagatik antzerkia eta politika ez nahasten ahalegindu da emakume hau. Hala ere, bera politika munduan erabat murgilduta egon da beti, eta zeharo abertzalea dugu, eta gazte gazte-tandik bere ideia eta iritzi politikoengatik gorriak eta beltzak pasa behar izan dituen. Eta oraindik ere, bere abertzaletasun eta iritzi politikoei tinko eusten die. Bere ideia politikoengatik ere jendeak behin baino gehiagotan agurra ukatu izan dio. Berak ordean, ez omen du jarra hori inoiz ulertu, eta ez zaio burutik pasatzen ere horrelakorik egitea, eta lehen esan bezala garrantzi handia du Mariarentzat pertsona bakoitzaren ideiak errespetatzeak.

GALDERA.— Eta Francoren garaiko zentsurarekin arazorik izan al zenuten?

Guk Ministerio de Informacion y Turismo—ra antzezlanak euskaraz bidali behar izaten genuen, eta harekin batera itzulpen laburtu bat. Gero zentsuratik pasa eta moztuta bidaltzen ziguten, batzuetan politika kontuengatik, bestetan, auskalo... hori horrela zen. Autoreetan ere baimena eskatu behar izaten genuen, eta propagandako txartelak seilatu behar izaten zizkiguten.

Gogoratzen dut behin, hemen, Urnietan lan bat antzeztu behar genuela eta guk uste genuen erretoreak baimena eskatu zuela eta erretoreak berriz, guk eskatua genuela uste. Iritsi zen antzezteko ordua eta paperik ez genuela konturatu ginen. Zer egin jakin gabe genbiltzala, "Tira antzeztu ezazue, ez dut uste ezer pasatuko denik eta" esan zigun

apaizak. Eta halaxe egin genuen, hasi ginen eta handik pixka batera etorri zitzaidan Goñi erretorea han atzean bi polizi zeudela esatera. Bukatu genuen emanaldiarekin eta paperen eske han etorri ziren eta apaizak egia esan zien, nola nahasketa hura gertatu zen eta beno gobernura eraman eta han argitu behar izan zuen kontu guztia, oso ondo portatu zen, aurpegia emanaz. Egia bota eta sinistu egin zioten eta Jaungoikoari eskerrak hor bukatu zen dena.

GALDERA.— Zer nolako gaiak aukeratzen zenituzten? Zein zen zuen kezkarik nagusia?

Guk denetarik ikuitzen genuen, gizarteko gaiak eta komediak, dene-tarik, egileak agintzen zuena. Droga kontuko lanak ere egin izan ditugu, Iñaki Begistainen "Igartutako Landarea"—n, neska batek oso ederki egiten zuen paper nagusia.

Bestela, antzerki politikorik ez genuen egiten, beno idazleak jasotakoa, baina antzerki mailan politika ez genuen asko sartzen. Oso asunto delikatuak zen hura, ikusleak ere ez ziren denak iritzi berdinekoak izaten, eta denak errespetagarriak dira bestalde; horregatik kontu haundia izan dugu politika antzerkiarekin ez nahasten.

Azpimarratzekoa da emakume honen indarra talde hau aurrera ateratzerakoan. EGI-BILAn urte gehien pasa dituzten partaideen esanetan Mariagatik izan ez balitz taldeak bizpahiru urte iraungo zituen eta bere horretan desegingo zen. Mariak, ordea, garai zailenetan animo haundia sartzen zuen. Jokin Izagirre taldeko beste antzezle batek hauxe esan digu: "Mariaren ezaugarriarik nabarmenetariko bat bere baikortasuna da, ez zuen inoiz eta inola etsitzen; taldean gora beherarik bazen edo, berak beti aurrera egiten zuen. Bestalde, Francoren garaia izanik, urte gogorrak ziren haiek, baina Mariak beldur gutxi zion zentsurari".

GALDERA.— Maria, nondik ateratzen zenuen inoiz etsi gabe aurrera egiteko kemena?

Tolosako Elola mueble dendatik beti hartzen genuen antzerkia egiteko altzariren bat edo, eta hango nagusiak beti esaten zidan "Emakume honen humorea! Baina, baina, baina..."

Bere ama ere oso graziosa eta salada omen zen, humore haundiko emakumea; eta harengandik ere jasoko zuela humore eta animoa aipatzerakoan, berak hauxe dio:

"Ene, nik ez daukat gure ama zenaren grazi erdirik ere, bera oso xelebrea zen, eta oso alaia".

Mariak, antzerkian aritzeko egin behar izan zituen ahaleginez galdetzerakoan, besteen meritoaz hitzegiten du, berak ezer egin izan ez balu bezalaxe.

Zer da bada hori egitea? Gogoz egiten nuen gainera, eta batere meriturik ez dut. Gustora aritzen nintzen eta horrek ez du meriturik. Neri antzerkia asko gustatzen zitzaidan, eta gainera ahizpek asko laguntzen zidaten. Batzutan entsaioetara joan behar izaten nuen baina lana oraindik bukatu gabe baldin baneukan: "Tira, segi ezan, zai edukiko ditun eta, hau nik bukatuko dinat" esaten zidan ahizpak. Bai, ahizpei asko gustatzen zitzaien antzerkia eta jarraitzeko animo haundiak ematen zizkidaten. Nerekin bizi zen ahizpak, emanaldia izaten genuen bakoitzean, jaikita itxoiten zuen goizeko ordu biak edo hirurak arte, ni etxera itzuli arte, nola joan zen galdetzeko, eta dena ondo kontatu arte ez zen lasai oheratzen. Gudan fede haundia zeukan harek. Pentsa ezazu zenbaterainokoa izango zen haren zaletasuna, taldea desegin zenean penarik haundiena berak hartu zuela.

GALDERA.— Maria, inoiz zure benetako ofizioa eta antzerkia bateratu al dituzu, hau da, muntairen batetarako jostea tokatu al zaizu?

Jiesus! Tokatuko ez zitzaidan ba! Makina bat bider —eta argazki bat erakutsiz— Hara, hemen ikusten den gotzai jantzi hau neronek egina

da. Jantziak gehienetan norberak antolatzen zituen edo batetik edo bestetik ateratzen genituen, baina beti izaten zen egin beharreko zerbait.

GALDERA.— Antzokiaz gain, zer nolako infraestruktura zenuten?

Hasieran, ez naiz ondo gogoratzen, baina ez dut uste ezer genuenik. Askotan joaten ginen eta antzokiak zuen argiarekin aritzen ginen. Gero foko txiki batzuk erosi genituen, ez dakit zenbat, baina bagenuen zerbait. Guk antzezteagatik oso gutxi kobratzen genuen, beno, hori, kobratzera iristen ginenean, eta jasotzen genuen diru gutxi hori gastuetarako, edo zerbait geratzen bazen fokoak erosten joan edo hurrengo muntairako izaten zen. Baina emanaldi asko eta asko musutruk egiten genituen, batzutan jasotzen zen dirua ikastolen alde zelako edo. Makina bat aldiz, herri batetara joan antzeztera eta dirurik izaten ez zenez, afari bat antolatzen ziguten emanuldiaren ondorenerako, bertan gogotik abestu eta etxera. Batzutan gasolina eta, izaten ziren gastuak gure poltsikotik ordaindu behar izaten genituen.

GALDERA.— Eta nola egiten zenuten eszenografia?

Beno ba, aulki batzuk zirela edo sofa batzuk edo, beti eskuratzen genuen antzezlanak eskatzen zuena. Gero hau herritxikia da eta arotz bati laguntza eskatu edo altzairu tailer batetara joan eta mesedez eskatu eta... horrelaxe lortzen genituen gauzak. Bionbo batzuk izaten genituen eta haiekin moldatzen genituen paretak edo sartu eta ateratzeko ateak. Eta gero, esate baterako, etxe bat adierazteko sofa batzuk jartzen genituen eta taberna antolatu behar bagenuen, mahai batzuk edo, sinplea izaten zen baina ederki geratzen zen. Tolosako Elola muebleriatik hartzen genituen antzerkia egin behar genuenerako altzairuak.

Hara eta hona ibiltzeko, baten edo bestearen kotxetan joaten ziren. Beti izaten zuten Juan Bautista Miner transportistaren laguntza bere

kamioian fokoak eta burniak sartu eta antzeztera zihoazen herrira eramateko. Ia beti, taldeko bi edo hiru mutil goizetik hurbiltzen ziren antzeztu beharreko lekura eta beraiek prestatzen zuten dena, gero gainerantzekoak arratsalde zuten eta falta zena bukatzen zuten, horrelaxe moldatzen ziren taldea osatzen zuten 14–18 lagun haiek.

GALDERA.— Zer dela eta desegin zen EGI–BILA taldea?

Beno, batetik giroa nahasia zegoen, bai herrian eta baita bazter guztietan ere, ez zegoen lehengo girorik. Eta bestetik, antzerki askoz landuago bat egiteari ekin zitzaion, jendea askoz gehiago prestatzen hasi zen, bai gorputz espresioa zela, mimoa, etab.; gu berriz, talde afizionatu bezala, horren aldamenean pixka bat atzera geratu ginen; jendearen interesak ere ez ziren berdinak, eta, horrelaxe ba... utzi egin nion antzerkia egiteari.

GALDERA.— Maria, zein litzateke antzerkiaz ari garela, zure amets izkutua?

Jendea taldean bildu eta lehengo izpirituarekin antzerkia berriz ere egitea. Giroa hemen oso nahastua dago eta ezinezkoa iruditzen zait berriz hori gertatzea, horrexegatik ametsa litzateke. Orain erraztasun gehiago daude, baina ez dago lehengo giroa. Guk ahal genuena egiten genuen, oraingo garaiekin ez dago konparatzerik, gainera orain jendea prestatugoa dago.

GALDERA.— Ezagutzen al duzu hemen Urnietan eraiki duten antzoki berria? Zer iruditzen zaizu?

Oso ederki dago. Orain Urnietarako, ez dakit, horrek mantentzeko beharko duen guztia..., auskalo nola moldatuko duten! Ikaragarritzko edifikzioa da, eta zoragarri jarrita dago. Gero teknika aldetik eta oraingo aurrerapen aldetik ez zaio ezer falta. Kanpotik etortzen diren taldeentzat gelak ere badaude, labadorak ere bai, bertan garbitu behar

badute. Oso ondo egina dago.

GALDERA.— Aurrerakuntza guzti hauek dituen Urnietako antzokia zure esku utziko balute, zein antzezlan estrenatuko zenuke berriz ere?

"Uste diñat" – erantzuten du, ondo pentsatu ondoren— Bai, hori antzeztu eta zuzendu ere egingo nuke gainera, hori bai litzatekeela nire ametsa.

GALDERA.— Eta atzera begira, egin dituzun muntaietatik zein duzu gogokoen?

"Uste diñat" bera, baina EGI-BILA taldearekin egindako lanetatik nik "Kalifornia Ku-Ku" aukeratuko nuke, hori oso ederki geratu zitzaigun.

GALDERA.— Zein da gehien gustatzen zaizun antzerki generoa?

Batez ere dramak gustazen zaizkit, zuzentzerakoan drama adieraztea errezagoa gertatzen da; euskaldunak goibelak garelako, edo behar bezain irekiak ez garelako edo, ez dakit zergatik baina neri errezagoa egiten zait drama adieraztea, arpegia, gorputza eta beste guztia jartzea drama antzezteko par eginarazteko baino. Oso zaila da jendeari par eginaraztea. Ikusle bezala komediak asko gustatzen zaizkit ordea.

GALDERA.— Eta atzera begiratuz gero, zer aldatuko zenuke?

Nik eraman dudan bizimoduarekin ez naiz sekula damutu izan. Jostea asko gustatu izan zait, antzerkia ere bai, abestea ere oso gogoko dut. Ni orain berriz jaioko banintz, edo 12 urte banitu, abesten ikasiko nuke. Antzerkia zuzentzen ere hasiko nintzateke, garaiko aurrerapenekin jakina.

GALDERA.— Zein da EGI-BILA taldearekiko gordetzen duzun

oroimenik maiteena?

Guk osatzen genuen lagun artea. Oso lagun arte giroederrekoa genuen guk. Ondo pasatzen genuen gainera, herri giroa eta lagun artea, giro goxo hura, horixe dut oso biziki gogoan. Eta orain ere, ahal dudan guztietan jende artean ibili eta inguruari eustea gustatzen zait, gaur ere misioetako bilera bat daukagu eta astean behin Meza Nagusira joaten garenok ere hango abestien entsaioa izaten dugu, honelako saltsetan ia beti ni izaten naiz zaharrena, baina ez zait bate-re inporta, izan ere, norbaitek izan beharko du zaharrena. Gainera, bai jostundegiagatik eta baita antzerkiagatik ere jende gazte artean ibiltzea tokatu izan zait beti, eta ez zait iruditzen gainera zaharra naitzenik –ez da harritzekoa, zeren, Mariak ez du, ez itxuraz, ez eta alde guztietatik darion bizitasunagatik, duen adina erakusten.

GALDERA.– Antzerkian ibili zaren urte hauetan, norbait eskertze-kotan, zein eskertuko zenuke?

Beno, gerra aurreko garai hartan dudarik gabe Roke Lasarte, harek asko erakutsi zidan.

Eta gero egileak, betez ere EGI–BILA taldearekin genbiltzanean egileak ziren gehien laguntzen zigutenak, edozer gauza edukiz gero beraingana jotzen genuen. Baita etxeok ere, bai ahizpak eta baita koinata eta ilobak, denek asko laguntzen baitzuten.

GALDERA.– Zein da urte guzti hauetan antzerkia eginez bilatzen zenuena?

Euskararen alde lan egitea, euskal Kultura eta hizkuntzaren alde aritzea, hori batez ere, eta gero herri giroa bultzatu, eta antzerki giroa herrian bizirik mantentzea; nere kezka batez ere, hoietxek izan dira.

Dena den, Maria gabe zihurrenik EGI–BILA talderik ez zen izango. Eta sortu balitz ere ez zituzkeen iraun zituen 16 urteak beteko.

Begi bizi–biziak dituen emakume honi ez zaio iruditzen bere bizitza osoan antzerkiari eskainitako ahalegin eta lanak aipatzeko modukoak direnik. Homenaldi hitza aipatzerakoan, haserre dio ez duela inongo homenaldirik nahi, izan ere berak antzerkia gogoz egin duenez eta ez omen du inongo meriturik. Baina hainbeste jende aurrean gerra aurretik antzeztu, ondoren EGI–BILA taldea sortu, gazte talde batengan antzerkiarekiko zaletasuna piztu eta bultzatu, eta herriko giroa astinduz euskara eta euskal kultura hainbeste zaindu, maitatu eta landu duen emakume bati, antzerkia maite dugunon partetik gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu. Eskerrik asko, Maria.

AIZPEA GOENAGA

JANAMARI MALHARIN

FEDE HANDIKO EUSKALTZALEA

Anderea,

Atzo balitz bezala oroitzen naiz. Alta, kasik hogeita hamar urte iragan dira geroztik. Arastiri batez jin nintzaizun ikustera. Teatroaz solastatzeko. Goitik beheiti eta petik goiti begiratu zenidan. Luzaz. Burua doiño bat igituz eta begiak hetsiz. Funtsean nik ere, begiak frango apal nituzkeen... Pentsa! Zurekin mintzatzeko nuen beldurrarekin ! Zergatik beldur ? Mademoiselle Malharin zinela kotz ! Mugerreko errientsa eskola-burua. Eta erakasle gutiz gehienek, larderiaren fama ukanki...

Aitortu nizularik antzerkia biziki gustatzen zitzaidala eta Jean Hiriart-Urruty jaun apezarekin euskaraz idazten ikasia nuela, zure begitartea lasaitu zen eta zure ezpain xokoak mugitu ziren, irri-firfira baten eskapatzera uzteko... Egin nizkizun galdera guztiei kartsuki eta xeheki erantzun zenien eta zure hitz ongi pizatuak antzerkirako neukan tirria emendatu zuten...

Bospasei aldiz jo dut zure etxeko atea. Zure erakaspenak, zure aholkuak, gain-gainetik aberasgarri zitzaizkidan. Zure baitan konfiantza osoa neukan eta idatzi nuen lehen antzerkitxoak : "Mendiko bakea", lehenik, zuri eman nizun, irakurtzeko.

Ados jarri ginen ere, lo kuluxkan zegoen Mugerreko antzerki taldea,

iratzarrarazi behar genuela. Baina gauzak ez ziren egun batetik bestera abiatu. Ni presatua nintzen. Zu ez hainbeste. Esperientzia duenak, alabaina, ainitzetan nahiago baitu apoharmatuaren urrats zuhurrean ibili, erbiarenean baino...

Bestalde, sortu berria zen “Enbata” mogimendua ez ginen zu eta ni, arras gogo bereko. Badakit, behin, hitz bat segurik ez zenuela bate-re gustukoa kausitu... eta orokorki ideia haieri frango hurbil bazinen ere, egiteko molde guztiak ez zenituela onartzen. Ez zenituen haatik Enbatako guztiak zaku berean sartzen. Michel Burucoa jaun medikua, adibidez, biziki laudatzen zenuen. Funtsean, hamabi urtez “Ohidurak” elkartean elgarrekin bermatu zarete, euskal dantzaren alde.

ANTZERKI SUSTATZAILE IRAUNKORRA

Dena dela, Peyroutet jaun bikarioaren eta bereziki zure inguruan, Mugerreko antzerki taldea berriz hasi zen eta zu gidari, lehen aldikotz, hupatu nintzen taula gainera ! Uste nuen baino zailagoa zela, antzerkilaritza ! Bai naski... Eta behar zenuen segur pazientzia izugarria gurekin zerbaitera heltzeko ! Guk, teatroa, gehienik, josteta bat bezala hartzen baigenuen, lagun arteko elgarretaratze sano eta atsegingarri bat, eta hitz dizuet, momentu onik pasa dugula komedia zela medio...

Zuhauri ere, Anderea, frango gustatzen zitzaizun, gu baino lehengo ari izanak ziren jokolari batzuren balentrien kondatzea, edo berdin, gauzak ahal bezain polliki itzulikatuz, haien eskerniatzea...

Maiz goraipatzen zenizkigun, Jean Lavigne, Jeannot Elissalde, Ametzagako Pierrot Larre (geroztik zenduak), Mentaxuriko Jeannot Larronde, Martxela Larre, Joséphine Daymon besteak beste.

Jokolari paregabe haiei eta zuri esker, Anderea, Mugerreko taldeak arrakasta gaitza bazuen eta Ahazparnen iragan antzerki txapelketa batetan, zuen taldea, beste guztiak eta bertakoa baino hobea izanez, eta futxo, epai-mahaikoek, atsulutuki, lehen saria Hazpandarrei eman

behar ! Ba orduan, zer gertatu zen bada? Mugerreko taldea ezarri zutela : "Hors concours !". Gorago ez zineten joaten ahal !

Aipatzen zenizkigun ere bi apez idazle : Paul Gilson eta Ernest Bidegain, biak errotik antzerkizaleak. Hain xuxen, azken honek "Les fourberies de Scapin" arramoldaturik, euskaraz "Manez Azeri" deitu zuen. Obra hori, zurekin ikasi genuen eta gero eman. Halaber, Piarres Larzabalen "Etxahun".

Antzerki sarreretarik bildu diru poxiarekin, bidaiak antolatzen zenituen. Urte batez, Loiolako Santutegira joan ginen. Etxerakoan, Tolosan gelditurik, erran zenidan : "Zauri Daniel, norbait presentatu behar dautzut". Eta Antonio-Maria Labayen, hegoaldeko antzerki idazle famatuenaren egoitzara eramanez ninduzun. Zer ohorea niretzat !

Hitz batez errateko, antzerki munduan finkatu nauzu eta eskerrak zor dizkizut. Eskerrak zor dizkizu Euskal Herriak, teatro taldeak kudeatu dituzulakotz, 25 urtez Mugerren, 8 urtez Itsasun !

Ez dut uste beste inor baden Ipar Euskal Herrian, 33 urtez, teatroaren alde, zu bezainbat bermatu denik !

IRAKASLE SUHAR

Eta hori, beste lan guztien gainera ! Zeren, ez genuke ahaztu behar, lehen lehenik, erakasle bat izan zarela. Eskola girixtinoko errients, Ahazparnen 6 urtez, Lekuinen 2 urtez, Mugerren 30 urtez - 1937tik 1967ra - eta azkenik Itsasun, beste hospasei urtez... Kasik beti, eskolaren buruzagitza ere segurtatzen zenuelarik.

Lehenbizikoa izan zara edo lehenbizikoetarik bat, frantsesarekin batera, polliki polliki, eskola denboran, euskara sartu duzuna, kantikak kopiatuz, kantuak ikasgaraziz. Katixima ere euskaraz erakasten zenuen. Hastapen-hastapeneko bihurgune zail hartan, Mugerren zine-larik, bi sustengatzaile aurkitu zenituen : Jean-Pierre Urricarriet herriko jaun erretora, kultura handiko euskaltzale suharra bai eta Gonzague de Séreville jauna.

Baina Mugerrera joan aitzin, Lekuinen zinelarik senditu zenuen euskararen beharra, indarra, ezin sinetsizko gertakari bat zela medio.

Jakin zenuen baizik eta, ama batek, hamabost bat urte inguruko bere bi alabak, amodioz, etxean gordetzen zituela, beldurrez norbaitek ebatsiko (lapurtuko) zizkiola. Ez ziren egundaino eskolan ibiliak, ez elizan. Eta inor ez zen etxe hartara hurbiltzen.

Zu, makila luze bat eskuan harturik joan zinen eta Jainkoaren mirakuiluz edo nik dakita, atea ireki zizuten. Miseria gorria... Amarekin eta haren ahizpa batekin mintzatu ondoan, emeki-emeki baina ez aise, bi nexkatoak nolabait bildu zenituen eta perekatu... Erbi edo lapin gazteak laztantzen diren bezala, beren etengabeko dardara apur bat ezti zedin... Berehala ohartu zinen eleketa ez zekitela, edo bederen, ahoa ez zutela ongi irekitzen. Baina zuri esker, ikasi zuten mintzatzen, irakurtzen, kondatzen. Eta nola ? Euskaraz. Lehenik. Ezin egin bestela ! Eta egun batez, nexka haietarik bati, zerbait frantsesez erran zeniolarik, hark oihu batean: “Mintza behar bezala !”.

“Mintza behar bezala !” Zer erakaspena ! Balekite, piza balezate gure Erresumako manatari-agintariek zer munstrokeria izan den, gizaldiz gizaldi, gure herri euskaldunetan, frantsesaren bortxaz sakatzea ; miletan baliagarriago izanen zelarik, lehenik euskara eta gero frantsesaren ikastea, horrela bi hizkuntzak apuñatik jakinen baigentuen !

Ez da harritzeko beraz aspaldi handian konprenitua baduzu, ez dela ez, mintzaira bat ahantziz, ukatuz, bestea hobeki ikasten, baizik eta biak lañoki erakatsiz, elgarri konparatuz, haurren izpirituak doblezka aberasten direla !

Eta, goraipatu nahi nuke ere haur munduan egin duzun lan paregabea : Euskaltzaleen Biltzarra batasunaren izenean, mende laurden batez nonbait han, haurren “Euskal Zeingehiagoka” lehiaketa preparamatuz eta artoski akulatuz !

“Ikas” elkartea sortzean, han zinen berme. Geroztik, Angèle Errandonea saratar irakasleak eta zuk eramán duzue eskoletako sail berezi hori. Urtez urte, beti berdin erne eta gazte, zure bi zalditako

auto itarrattalari famatuarekin, trosta hona, trosta hara, eskolaz eskola ibili zara, lehenik lanen proposatzeko eta ondotik, haurren saristatzeko...

Sail askotan egin dituzun urrats isil bezain preziagarriak, Anderea, ez dira segur ,debaldetan izan. Segitzaileak badituzu. Agian, zuk bezainbat eta zuk bezain luzaz lan egingen dugu, gure Herriak bere urratsa euskaldunki segi dezan !

Eskerrak zuri !

Goresmen eta zorionak !

DANIEL LANDART

Janamari Malharin andereak antzerki sailean agertu dituen obra garrantzitsuenen zerrenda:

<i>Mugerren Nork hil du Oyanalde?</i>	<i>Larzabal</i>
" <i>Kakerre</i>	<i>Guilson</i>
" <i>Manez azeri</i>	<i>Guilson</i>
" <i>Urriki latza</i>	<i>Larzabal</i>
" <i>Herriko bozak</i>	<i>Larzabal</i>
" <i>Roxali</i>	<i>Larzabal</i>
" <i>Etchahun</i>	<i>Larzabal</i>
" <i>Koropillo</i>	<i>Guilson</i>
" <i>Hila espos</i>	<i>Larzabal</i>
" <i>Herriko besta bihamunean</i>	<i>Leon Leon</i>
" <i>Baionako merkatuan</i>	<i>Anonimoa</i>
" <i>Gure behia hila da</i>	<i>Monzon</i>
" <i>Graxie ezkongai</i>	<i>Anonimoa</i>
" <i>Pettan mihiku</i>	<i>Bidegain</i>
<i>Itsasun Ene gizon gaia</i>	<i>Mayi Elizagaray</i>
" <i>Mutil berri</i>	<i>Larzabal</i>
" <i>Otsoak artaldean</i>	<i>Larzabal</i>
" <i>Suedako neskatxa</i>	<i>Larzabal</i>
" <i>Sarako lorea</i>	<i>Larzabal</i>
" <i>Hil biziaren ordeinua</i>	<i>Lafitte</i>

Antzerki bakoitza ainitz aldiz eman dugu herriz herri kurrituz bortz, sei aldiz baina beste batzuk hamarreraino arte antzerkiaren arabera.

ONDARROA ETA ANTZERKIA

Azpeitiko antzerti topaketak, bizitasun barri bat sortu nai izan dautse euskal antzertiaren inguruari.

Ez da bakarrik antzerki idatzia, ez eta antzerki antzeztua ere. Sakonago jo nai izan da. Zela-ala euskal erri andi eta txikietan egiten ziran antzerki jaien eta taldeen gogorapena ekarri, eta aurtengo antzera, gaur urteen urtez okertuta edo zortuta edo minberatuta bizi diran aldi bateko antzezlari biziei, antzerki jai barri bat bizi eragin. Amets gozoak, esango, neuke.

Ez al zan izen orretako antzerki lanen bat guk euskal antzertiko izenburuen artean ezagutu gendun antzerki txiki baten deitura?

Aurten gaiñera, ez dakit emakumeen eskubideak bizitzan dauken gizaldietako alboratze edo bastertzearen iraultzari buruzko eskabideei amore ematearren edo zegaitik, emakumearen antzerkiko partaidetza, arnas eta bizi emotea gogoratu nai izan dira, eta toki askotako emakume antzezlarien izenean iru erritako beste ainbat emakume aukeratu dira, gure denbora zarretako urteetan, antzerki mundu txikian, edo besterik ezean borondate zabala euki eta agertu eben eskintza gogoratu eta eskartzeko.

Kontu egin lengo antzezlarietara jo eta eurekin jarduteko, gure azken gerrara jo dala, zeatz esateko gerra aurrera, eta antzerkietan egille edo irudigille ziranetan agertzeko, batez beste ogei urte atzerago jo bear dala...eta orrek larogetak urtetako ordezkariak

aukeratzera eroaten gaitu. Ainbeste urte, urteak dira batzuk beste mundura joateko ere, edo ta geratzen diranak etxe bazterretako bakea eta epela maiteago izateko.

Danak ez dira antzezlarien erakusle alegintsu izan dan Maria Dolores Agirre, errejildarra jaiotez, donostiarra bizitez, eta antzerki zuzendari lez euskal oorezko izateko aukera daukenak.

Baiña mugatu nadin nire errira, Ondarroara.

Ondarroan, Primo de Riveraren diktadura arte, antzerki batzuk egiten ziran batzoki zarrean.

Aldi aretan ez egoan errian jai-toki sarraturik. Orduko batzokia gaur C.D. Aurrera kafetetxea dagon tokian egoan, eta toki orrek goi aldean, Iparkale aldera daukan etxeoiñean egiten zituen komediak.

Gogoan daukat, txikitxo nitzala, 1.922 urte inguruan, "Gorgonioren estutasunak eta boltsa galdua" antzeztu ebela iru-lau aldiz. Martzelino Soroaren lana zan, Juan Gimonen musika ta guzti. Orduan Angel Garitano (Angel Pintoria), Periko Ituarte, Jose Ituarte (Jose Zintzo) eta abar ziran egiten ebenak. Gizon utsak lan egiten eben. Eta beste antzerkiren bat be egin eben, Iñioiz egin eben "Cuestion de Calabaza, Unamunorena be.

Edozetara ere toki txikia zan eta origaitik estu ta larri lan egin bear. Diktadura etorri eta batzokia kendu bear izan eben.

Gogoan daukat "Santa Clara" izeneko arrantzialien kofradia inguru orretan barriztu zala eta umeentzako eskola bat eukala etxe barruan, eta orduan, gaztetxoak, Azkue'ren "Sasi Eskola" antzeztu ebela. Eta "Sasi Eskola" orrek be, bear ba da umeentzako antzerki eskola egin nairik sortuak ez eban asko iraun. Gaia, umeak antzeztuarren, ez zan atsegiña orduko agintari eta adiskideentzat.

Eta orrela, aldi aretan, erdal antzerkia sartu zan Ondarroan, Aurrera Kirol Alkarteak eratuta. Eta diktadurak sei urtetik gora iraun ebanez, ainbat lan gertu ziran: "La alegria de la Huerta", "Katiuska", "La del Manojito de Rosas" eta besteren batzuk, eta abade ikasleak "Chao" miñño antzerkia gertu eben.

Lan oneik garai aretan zabaldua zan “Cine Celaya”n emoten ziran. Ez eukan zine arek aukera andirik orrelako jaialdiak emoteko. Baina beste lekurik ezean, bertan egin bear.

Diktadura amaitu, errepublika aldia etorri ta Portu kale izenez ezagutzen zan etxe aundi baten, beko etxeoiñean, zabaldu zan batzoki barria eta an bertan ipini zan tokitxo bat, familian lez, alik eta jairik geien emon al izateko eran.

An be ba genduzan aldekoak eta aurkakoak.

Antzeztoki txikia, nai ta jendearentzat toki dexentea euki, baiña etxean lez, danok pozik.

Aldi aretan euki genduzan akatsak eta birtuteak.

Birtutea: gogo bizi ta gartsua lanerako.

Akatsa: eleiz alkarteen erakundetatik etorran.

Erriko gaztedirik geiena, eleiz erakundetan sartuta egoan. Eta Mariaren alabak zeero galerazoten eutsen bertako lagunei mutillekin baterako dantza, antzerki eta orrelakoetan esku artzea.

Mutillak, luistarrak, ez ziran ain zitál.

Baiña ori, nai ta batzokiak berak orretan eragozpenik ez, lanerako estuntza zan, lotura bat, katea.

Orrela batzutan mutil utsen antzerkiak egiten ziran, bestetan neska utsenak, eta bai mixtoak be, nai eta zuzendari batek kontuan euki bear banaketa egitean, iñor ardura eta kezketan ez sartzeko, nai eta bere asmorik ezin ase aukeratzetan.

Edozetara be batzokian antzeztu al izan ziran Toribio Alzagaren “Neskazar”, “Aterako gera”, “San Tomaseko periya”, “Asentzi ta Kontxesi”, “Melitonaren bi senarrak”, “Bernaiñoren larriak”; Amundarain’en “Egin zak on” eta “Uste diñat”; Barriola’ren “Meza berriya” eta “Aldiz Aldiz”; “Garitaonandiaren “Iziartxo”; Larraitz’en “Morroi jatorra”; Soroaren “Ezer ez eta festa”, Mokoroaren “Damua garaiz” eta abar. Bai eta nire “Aberriagaz bizi” eta “Illobearen indarra”.

Aldi aretan, eta aurretik be, ba ekien Donostiako Euskal Iztundekoak errira etorten eta orrela "Cine Celaya" lenengo eta "Cine Bide Onera" izena aldatuz geroago, izan zan eurak "Dollorra", "Garbiñe", "Mutilzar" eta abar emon zituen tokia eta guretzat eskola lez izaten ziran euren agerkundeak, garai aretan ez egoalako erraztasunik beste errietara joateko.

Orrela Egileor eta Beorlegi oso entzutetsu ziran gure artean, benetan antzezleri trebe eta jator agertzen ekielako.

1.934'n Donostiako Kursaaaleko be-aldean ba egoan antzoki txiki bat eta ara be joan giñan ondarrutarrok. "Aitzol" buru zala gertu ziran antzerki taldeen leiaketetara.

Guk arako ikasi eta aukeratu gendun antzerkia Jemein eta Errasti'k idatzitako "Oleskari Biak" zan.

Zegaitik aukeratu gendun? Ba bertan bertsolari papera egiten ebana, abots on, prestaera eder, alai eta atsegiña gendulako. Eta sekula gertatu ez yakuna. Lan erdi inguruan, bertsolaria ekiñean ebillala, bertsoak astu jakozan eta alperrik "apuntadorea" ekiñala bizian ibili, ezin gogoratu eta ikusleen txaloei esker... mutilla, zela-ala, berera etorri zan.

Jakiña, kritika ona euki gendun, euskal lanetan fraile manga zabalen antzera dana parkatzen jakin dogulako, baiña saririk ez. Eta ori be, antzerki berbetan, "Ezer ez eta festa" lakoa zan.

Nire gogoeta eta esanetan galdu barik, dana niretik esan barik, topaketa onetan omenduko diranen artean dagon Miren Arrizabalaga Badiola'ri itxiko dautsat lantxo onen luzapena.

Atsegiña da Miren eta erantzuteko berezko erraztasuna daukana.

Asi nadin:

A.- Miren, zu arrantzale familian jaio ziñan.

M.- Ezin ukatu. Onetan arro gara ondarrutarrok, nai ta asko sufridu.

A.- Ondarrutar lez, eukiko dozu ezizen edo goitizenen bat?

M.- Euki ezik ez nitzake ondarrutar jator. Bai, "Sagastaneku".

A.- Sagasta ori nundik datorkizue, politikatik?

M.- Ustez ala leike. Ondarroan "Rochil", "Azillona" eta orrelako goitizen ugari datoz.

A.- Ez dozu uste "segail" edo orrelako deituren bat okertuta or geratuko zanik?

M.- Ez dakit. Nire familian gizon argalik ez da egon izan, danak lodiak baino.

A.- Ikasketak nun egin zenduzan?

M.- Ondarroan, Gurutzeko alabetako sor Luzia, sor Amalia eta abarrekin.

A.- Eta gero antxoari buru kentzera, ez?

M.- Eta sareak konpontzera, txalopako arraiña karriatzera, eta abar.

A.- Zuek arrantzako "motor" bat be euki zenduen...

M.- Motorra ez, "bapora". "Sagrada Familia" izenekoa.

A.- Ba daukazu etxean itxas ondamendien gogapenik, Ondarroan ainbestek euki izan daben edo dauken lez?

M.- Zorionez ez. Denporale gogorak eta larri etorritako egunak gogoratzen zituenak bai, baiña ittotakorik ez.

A.- Noiz asi ziñan antzerki lanetan?

M.- Umetan. Lenengo Kofradiko eskolan.

A.- Gogoratzen zara lenengo obraren izenagaz?

M.- Bai. "Sasi eskola". Mutillak. Eta guk... Miren Zelaia, Jakinde Osa eta abar giñan.

A.- Zeiñen papera egin zendun zuk?

M.- Iru aizta agertzen ziran, eta iruretatik bat. Edurne, Maitane ta... une onetan gogoratzen ez irugarrenaren izenik.

A.- Eta geroago?

M.- Eskatzen edo agintzen eustena.

A.- Antzerkietan erabilten diran ainbeste maite-gaien artean, ez ziñan iñoiz enamoratu?

M.- (Barrezka). Adarra jotzen zatoz?

A.- Ez dakit. 83 urte bete dozuz ta... Egin zendun lanik iñoiz "Neskazar" obran?

M.- Zu zeu ez asi gero adarra joteko makiña lez. Roberta Arriolak egin eban ori. Eta beste zirikada... Bakoitzak daki bere barri eta kitto. Ni neu pozik nago neure izateagaz ta or konpon.

A.- Antzerkira jota: Zein antzerki izan zendun gogokoen?

M.- Abertzale saillean "Negarrez igaro zan atsua".

A.- Eta sentimentuz, biotz ikutuz?

M.- Mokoroaren "Damua garaiz" beti jausten zan ondo. Bai berba eta bai doiñuz.

A.- Eta etxeko lanetan?

M.- "Uste diñat, ya lo creo" neskatzentzat barregarri zan.

- A.- *Gogoratzen zara zugaz lan egiten eben beste andrazkoekin?*
- M.- *Miren Aranzamendi, Rosario Zubikarai, Anita Urresti, Consuelo Bilbao... bizi diranen artean.*
- A.- *Eta ildakoetan?*
- M.- *Roberta Arriola, Nati Bengoetxea, Miren Arrasate, eta... eta... Ez dakizu gure adiñean, mingaiñan puntan izen asko geratzen dirala? Parkatu dagiztela.*
- A.- *Urteak igaro ta gerra ondoren luze baten, “Kresala” taldea sortu zan. Egiten zendun bertan lanik?*
- M.- *Ez. Aldi orretan naiko zeregin neukan beste “Kresala” baten. Izen orretako bar bat gendun etxekoen artean eta ni nitzan sukaldari.*
- A.- *Orretara antzerkia bizi-jolasa dan lez, sukaldaritza izan lei baita bizi-lana, ta... zuretzat zer da arraiñik onena erreata jateko?*
- M.- *Sardiñak fresko fresko dagozanean. Itxasotik ekarriagaz batera gatza emon eta erre-ala janaz.*
- A.- *Eta saltsan?*
- M.- *Lebatza, txirla batzukin.*
- A.- *Eta gaur deitzen diran lez, plater “konbinatueta”?*
- M.- *Orreik saltsa matrakak izaten dira. Gauzak euren osotasunean izaten dira onenak.*
- A.- *Sukaldari bizitza atsegin zendun?*
- M.- *Nik atsegin nebana jaten etorten ziranak pozik bialtzea izaten zan.*
- A.- *Orretara antzerkian biotzak eta gogoak alaitu eta asetzen diran*

lez, sukaldaritzan sabelak asetzen alegindu zīñan.

M.- Bai, antzerkian eta sukaldaritzan, beti iñoren serbitsuan eta borondaterik onenagaz gaiñera. Antzerkietan ikasi nebana: "Uste diñat... ya lo creo!"

AUGUSTIN ZUBIKARAI

AURKIBIDEA

<i>Emakume egileak euskal antzerkian</i>	
Axen Egaña.	1
 <i>María Arizmendi</i>	
Aizpea Goenaga	7
 <i>Janamari Malharin. Fede handiko euskaltzalea</i>	
Daniel Landart.	33
 <i>Ondarroa eta antzerkia</i>	
Augustin Zubikarai	39



AZPEITIKO UDALA



URNIETAKO UDALA



ONDARROAKO UDALA



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA



kutxa fundazioa
fundación kutxa